

# noaia

**Usurbilgo txanpona,  
eskuragarri**


**Euskadiko Judo  
Txapelketan,  
Usurbil nagusi**

**Igande honetan Sutegin:  
'Amama' pelikula**

**Idoia Torregarai:**

**“Denok egin dezakegu umorea”**

Zorionak eta  
urte berri on!



**ETXETXO  
LORATEGIA**

ZUBIETA

**URDAIRA**

Sagardotegia

Abenduak 19, LARUNBATA  
**BARRIKOTEA**  
20:00etan Urdairan

Aginaga 943 37 26 91



Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

*ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA*

**188.000 €** tik



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditzen

# Larunbat honetan, Jostailu Erabilien Azoka

**E**rosi, erabili eta bota ordez, jostailu eta aisialdiko produktuen trukea eta bererabilera sustatu nahi du Hitz Aho, Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, larunbaterako frontoian antolatu duen Jostailu Erabilien Azokarekin. Egunotan egingo da bilketa. Jostailuak utzi nahi badituzue, osorik egon behar dute. DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute. Utzitako materiala musutruk eman beharko da, eta nahi izanez gero, trukerako txartela eskuratzeko aukera egongo da:

- Abenduak 10, 11: 17:00-19:00 Azokarako material bilketa, Sutegi erakustaretoan.
- Abenduak 12, 11:00-13:00 Jostailu Erabilien Azoka frontoian.
- Antolatzailea: Hitz Aho, Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak.



Ostegunean eta ostiralean bilketa lanak egingo dituzte, baina azoka larunbatean izango da.

## Laburrean

### Posta bidezko bozka

Abenduaren 20ko hauteskundeetan herrian egoteko moduan ez bazaude, bozka aurretik emateko aukera duzu. Posta bidez bozka emateko epea abenduaren 10ean amaituko da, eta Correos bulegoan egin behar da.

### Gripearen aurkako kanpaina

Azaroaren 30era arte finkatua zegoen epea, abenduaren 18ra arte luzatzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Osasun Sailaren esanetan, ez baitute inor txertatu gabe geratzerik nahi. Informazio gehiago anbulatorioan: 943 362 013.

### Gattunk DVD-a salgai

#Kilometroak15 ekimeneko aurkezpen ikusizuna, #Gattunk bideoklipa eta Udarregi ikastolaren inguruko dokumentala. Hiru lan horiek bateratu dituzte DVDan. Interesa duenak, eskura du Lizardin eta Laurok liburu dendetan.

# noaia

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldia. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatorak:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzio@noaia.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldia,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon  
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis  
Elortza, Pello Aranburu, Xabier  
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-  
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen  
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta  
Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Azokaz eta erosleaz

**D**urangoko Azokak aurtengo edizioaren balorazioa egin du: “50. urtemuga borobila izan da”. To. Hori idatzi duena lasai arraio geratu da. “Bisitari aldetik, salmenta aldetik, giro aldetik, egitarau aldetik, sentsazio aldetik... Azokako arduradunak legez, erakustokietako arduradunak ere pozik agertu dira aurtengo Azokak eman duenarekin”. Joño. Aje ederrarekin izango da prentsa arduraduna.

Parrandatik ere baduelako Azokak. Adinean aurrera egin ahala, goizago erretiratzen garen arren, saltoki barrukoa bezain interesgarria izan ohi da

saltoki kanpokoak. Eztabaidak, txutxumutxuak... Egitasmo askoren ernamuin ere badira Azokako gauak. Zenbat proiektu makinatuko ziren ordu txikitian. Datorren urteko Azokan ikusiko dugu.

Balorazio-oharrean badira sakonagoak diren esaldiak: “Euskal kulturak oro har, eta Durangoko Azokak zehazki, garaian garaiko izaten jakin du, eta jakin beharko du. Urteak bete ahala berritu. Zahartu ahala gaztetu. Horixe da gure asmoa: 51. Durangoko Azokak jauzi bat izan behar du transmisioan”. Eta egiari zor, Azokakoek jakin dute behar berrietara egokitzen. Ahotsenea

guneari esker, sortzaileek orain plaza propioa dute Azokan. Eta aukeran, idazle batek edota kantari batek, saltokia baino oholtza du nahiago.

“Azken batean, helburua betikoa da”, hala segitzen du balorazio orriak: “euskal kultura geroratzea. Eta betiko hiru hankak behar ditugu bide hori egiteko: herri-ekimena eta borondatezko lana; sortzaileak eta industria; eta herri-erakundeak eta alderdiak”.

Publikoa aipatzea ahaztu dute. Liburuak eta diskoak eroatera hurbiltzen diren herriarrak. Eta honi lotuta, argitaletxe bateko editore batek esan zidana etorri zait buru-

ra: “guk ez ditugu liburuak saltzen. Jendeak erosi egiten ditu. Jakinaren gainean dator zertara datorren”. Alegia, Azokan sartu aurretik gutxi asko badakiela zer etxeratu nahi duen. Azken hau ordea, ez dakit zehazki hala ote den.

Baina terminologia kontuetan, kazetariok beste modu batera kategorizatzen hasi beharko genuke. Liburu eta disko salduenen zerrendak osatu baino, liburu eta disko erosien zerrendak egin beharko lirakeke. Akzioa, eroatera joaten denarena baita. Eta Azoka bati, edozein dela tematika, zentzua ematen diona. Eroslea.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

### Ika-mika

## Zubietatik Parisera begira

**K**omunikabide guztiek hizpide izan dute Nazio Batuek Parisen egin duten klima-aldaketari buruzko goi-bilera. Gai honetaz inoiz egin den bilerarik garrantzitsuen. Kyotoko protokoloak porrot egin ondoren, estatuek konpromisoak hartu behar dituzte, nahitaez, baldin eta helburua lortu nahi badute, hau da, mende honen bukaeran planetaren batz besteko tenperatura gehienez ere bi gradu igotzea. Izan ere, bi gradutik gora igoz gero, adituek ondorio katastrofikoak iragarri dituzte.

Horregatik Eguzkikook, mundu zabaleko gainerako ekologistak bezala, egunotan Parisera begira egon gara. Baina, “global pentsatu, lokal jokatu” filosofia beti gogoan,

ez diogu horregatik gure gertuko inguruari begirik kenduko. Eta, horrela, ia-ia nahi gabe, begirada joan zaigu Zubietako Gainera, non Foru Aldundiak berriro hondakin-errastegi bat ezarri nahi duen. Errastegia da Gipuzkoako ondoko urteetan klima-aldaketa moteltzeko ahaleginei egin diezaikekeen mesederik txarrena. Diferentzia handiarekin, gainera. Horren lekuko dira jarraian aipatuko ditugun datuak, datu publikoak, interesa duen edozeinen esku daudenak, bestalde.

Zabalgarbik, Bizkaiko errastegia, iaz 223.340 tona zabor erre eta atmosferara 235.000 tona CO2 isuri zituen, berotegi-efektuko beste hainbat gas eta elementu kutsagarri botatzeaz gain. Enpresak

berak Estatuko erregistroari (PRTR) emandako datuak dira, hau da, datu ofizialak (errealak are handiagoak dira, noski). Datu hauei “esker”, Zabalgarbi Euskal Herriko bost enpresa kutsatzaileen zerrendan dago, hirugarren edo bostgarren postuan (segun datuak nola konputatzen diren). Ez da batere postu txarra, batez ere zerrendaburuak Petronor eta Bahía Bizkaia zentral termikoa direla kontuan izanda.

Zubietako eraustegian urtean 260.000 tona zabor erre nahi zituzten. Proiektuaren sustatzaileek onartu dute gehiegitxo zela eta proiektua “doitu” beharko dutela. Baina “doitzea” zenbatekoa den ez dakigun bitartean, 260.000 tonei heldu behar diegu, nahitaez. Bada, Zabal-

garbiko zenbakiak hiruko erregela baten bidez estrapolatuz, Zubietako errastegiak urtean 273.573 tona CO2 isuriko litzuzke. Hau ere Euskal Herriko bost enpresa kutsatzaileen zerrendan sartuko litzateke. Gipuzkoako kutsatzaileena izango litzateke, duda handirik gabe.

Beraz, Zubietako errastegia personeren osasunerako zein ingurumenarako, ekonomia zirkularerako zein iraunkortasunerako kaltegarria izateaz gainera, Gipuzkoako ondoko urteetan klima-aldaketari galga jartzeko ahaleginari egin diezaikekeen mesederik zitalena da, arestian esan bezala.

Egunotan Parisera begiratzen baduzu, begiratu Zubietatik.

**Martin Anso, Eguzki**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: abenduak 18. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 11.

# 'Bi Txoriburu' proiektuaren bigarren agerraldia

Ekainean Bi Txoriburu erakusketa antolatu zuen Zorione Mendez herritarrak; bertako arropa disenatzaileen lanak jarri zituen ikusgai, munduko hainbat txokotako jostunen lan baldintza kaxkarrak salatu eta hauen alde lanean diharduten elkartasun taldeen berri emateaz gain. Erakusketa haren segida edo bigarren zatia dator orain, abenduaren 14tik 27ra.

"Arte diziplina desberdinetako lanak. Eskultura, pintura, argazkia, grabatua, serigrafia... Bertan hainbat artista ezberdinek parte hartuko dute, tartean baita herritar batzuk ere. Helburua bertako artea baloratzea eta kontsumitzea da. Bestalde, artisten lanak ezagutzeko aukera paregabea izango da", erakusketaren sustatzaileek aditzera eman dutenez.

## Abenduaren 17an, herriko hiru sortzailearen aurkezpena

Erakusketa honen baitan izango da, abenduaren 17an, 18:30etan Sute-gin. "Peru Galbete, Ion Markel Saez de Urabain eta Ibai Arrietaren be-



Ekainean erakusketa antolatu zuen Zorione Mendezek eta Beñat Irazustaren laguntza izan zuen. Honakoan, sortzaile gehiagoren aterpe izango da erakusketa.

## HELBURUA

**"Eskultura, pintura, argazkia, grabatua, serigrafia... Erakusketan artista ezberdinek parte hartuko dute. Helburua bertako artea baloratzea eta kontsumitzea da"**

giradapean egindako hiru lan plazaratuko dira. Lan dokumentalean oinarritzen diren kontakizun hauek,

argazki proiektu zein laburmetrai formatua dituzte euskarri. Egindako lanak ikusteaz gain, garatze prozesua eta ikuslearen interesa sor dezaketen hainbat xehetasun azalduko dira.

## Abenduaren 14tik 27ra, erakusketa Sute-gin

■ Epea: abenduak 14-27.

■ Tokia: Sute-gin erakustaretoa.

■ Orduetgia: Asteleheneetik ostiralera: 17:00-20:00.

Larunbat eta igandeetan: 11:00-14:00 / 17:00-20:00.

## KMK15-en balorazio bilera

Kilometroak 2015 Gattunk ekimenaren balorazioa herriarekin partekatu nahi dute Udarregi Ikastolak eta Usurbilgo Udalak. Ekitaldi baten bueltan izango da. Abenduaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan hasita Sute-gin auditorioan. Saio irekia izangoenez, gerturatzeko deia zabaldu dute. "Ekimen honen bueltan aritu den herritar orori luzatu nahi diegu bertaratzeko gonbita", antolatzaileren esanetan.

## Gure Zozketak, sariturik ez

Bi hilabete igaro dira eta sariturik ez da azaldu. 60.000 euro jokoan jarri dituen KMK15 ekimenaren aldeko Gure Zozketako lehen zenbaki saritua izan zezakeen (51.855) inor ez zen agertu azaroaren 5era arte finkatua zegoen epearen baitan. Bigarren zenbaki saritu batekin ere (2.689) proba egin dute azken asteotan. Baina gauza bera gertatu da. Antolatzaileren onenbestez, "Kilometroak 2015 ekimenak Usurbilgo Udarregi Ikastolaren eraikin berriaren finantzazioan laguntzeko erabiliko du zozketatutako saria".

## Ika-mika

# Olentzero nor den badakigu

Ate joka ditugu Gabonak. Urtero bezala apainketak, opariak, lagunarteko edo lankideen arteko otordu goxoak, familia batzuek eta antzekoak prestatzen ari gara. Gu ere hasi gara sasoi berezi honetan gure senide presoen eskubideak aldarrikatzeko egin ohi ditugun ekimenak antolatzen.

Horien artean, urteak dira beste talde batzuekin elkarlanean Olentzero solidarioa ateratzen dugula. Herriko kaleak alaitzarekin batera, gure helburu behinena izaten da haien egoera gogoratzea baina,

batez ere, herritarren goxotasuna espetxe hotzetara helaraztea eta Xomorro, Olatz eta Patxi nolabait gurekin batera kalejiran abesten ditugula islatzea.

Badakigu denok oso lanpetuta ibiltzen garela egun horretan atzera eta aurrera hamaika zer eginetan murgilduta. Hori aitortuta ere, zer egin horien artean bi ordutxo integratzea eskatzen dizuegu, berriro ere. Baserritar jantzia astindu, soinean jantzi eta gurekin batera abestiz eta musikaz une goxo bat pasatzera etortzeko gomita luza-

tzen dizuegu. Elkartasuna eta aldarrikapena lotuz, beste urratsa egingo baitugu haiek ere gure artean lehenbailehen izateko.

Agian izango da ekimen hutsala dela pentsatzen duenik baina guk argi daukagu ezin ditugula aurreratutako pausoak atzera egiten utzi. Ekimen guzti guztiak dira beharrezko txingurri lan horretan aitzinatzen joateko, etsipena gailentzea bilatzen duten Estatuaren jokamolde gizagabeari aurre egiteko. Hori da gure indarra, zuek ematen diguzuen indarra.

Izan ere, guk jakin badakigu zapa-nori jarri, nork ekarriko dizkigun opari ederrenak, hau da, gure senideak etxera. Zu, herrikide, zu zara gure Olentzero. Eta hala erakutsiko dugu berriz abenduaren 24ean, 17:30ean punttu-punttuan frontoitik abiatuta, herriko kaleetan zehar eta urtarilaren 9an Bilboko edota Baionako karriketara.

## Usurbilen Nahi Ditugu elkarte

(\*) Abenduaren 15ean, 18:30ean entsegua izango da Kantujira taldekoekin Udarregi ikastolan.

# Santo Tomas azoka, gertu

**A** benduaren 20an, Santo Tomas bezperan egokituko da aurtengo azoka. Prestaketa lanak abiatu ditugu. Eguberrien atariko jaialdiak osagai zapoetsu askoak izango ditu, asebeteta gera zaitezten.

## Txerrikiak

Azokaz ari bagara, ezin jan edanik falta. Urtero moduan, bertako sagardoa dastatzeko aukera izango duzue. Eta jatekorik ez da faltako. Nobedade gisa, txerrikiaren postu bat izango da aurtengoa. Bestalde, azken hilabeteotan indarberritu den talogileak ere pilotaleku sarreran aurkituko dituzue, baita gaztaingileak ere. Eta postuez ari garelako, Nafartarrak taldekoen eskutik, Zuberoko ikastolak laguntzeko antolatutako elkartasun kanpainak ere postua izango du aurtengoa. Otarrak eskatu dituzuenok, bertan eskuratu ahalko dituzue, baita unean bertan erosi ere. Zuberotar taldea gerturatzekoa da Usurbila. Azokan bertan emango dio amaiera elkartasun kanpainari Nafartarrak taldeak. Antolatutako ditugun babarrun eta sagardo txapelketen sari banaketa ekitaldian hain zuzen.

## Argazki "sesioa"

Iaz bezala, prestatu gure "fotokol" partikularerako. Argazki bat ateratzen uzten badiguzue, trukean Nafarroa hegoaldeko produktu goxo askoz hornituriko saskia irabazteko zozketan parte hartuko duzue. Argazki "sesioa" NOAUA!k jarririk duen postuan izango da. Hainbat produktu eskuratzeko aukeraz gain, NOAUA!ko kide ez bazara, gerturatu eta bertan tramitatuko dizugu bazkidetza.

## Sagardo eta babarrun txapelketak

Santo Tomas Azokan ezinbestekoak bihurtu diren sagardo eta babarrun txapelketak antolatu ditugu aurtengoa ere. Herriko ekoizleok, izen emateko epea zabalik duzue abenduaren 17ra arte.

■ Sagardo lehiaketa: sagardotegiek ezinongo dute parte hartu. Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio.

■ Babarrun lehiaketa: partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du



Datorren astean, abenduaren 20arekin ospatuko da aurtengo Santo Tomas azoka.

## TXAPELKETA

**"Santo Tomas Azokan ezinbestekoak bihurtu diren sagardo eta babarrun txapelketak antolatu ditugu aurtengoa ere. Herriko ekoizleok, izen emateko epea zabalik duzue abenduaren 17ra arte"**

eta 12 euro ordainduko zaio. Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.

■ Dizdira: berezko dizdira beste edozein produktorekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

■ Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

## Txapelketetako sariak:

1. Sarituarentzat: 150 euro + txapela.
2. Sarituarentzat: 90 euro + kopa.
3. Sarituarentzat: 50 euro.

## Izen ematea:

Abenduaren 9tik 17ra, NOAUA!ko egoitzan. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00/16:00-19:00. Informazio gehiago: 943 360 321.

## Lanbideak, 2016ko Inauteri Festarako gaia

Lanbideak, ogibideak, denetarikofizioak, tradizionalak, berriagoak direnak... Lan mundua mozorrotzera goaz datorren Inauteri Festan. Email bidez, nahiz tabernetan jarritako zerrendetan jaso ditugun ekarpenen artean errepikatuen izan den gaia aukeratu dugu. Milesker, ekarpenak egiten aritu zareten guztioi! Gaia hautatuta, orain, mozorroa sortu eta lantzeraz, hitzordua gerturatzen ari da eta. 2016ko otsailaren 6an kalean dugu hitzordua; mozorro festa handiaren bueltan. Musika eta



2016ko otsailaren 6an egingo da Inauteri Festa.

parrandarako girorik ez da faltako. Hasi prestatzen!

# Tokiko txanpona eskuragarri

**A**lkartasuna Kooperatiban, Esnaola janari dendan, Ivan Perez argazki estudioan, Lurda merzterian, Marije arropa denda eta Usurbil Optikan eskuragarri duzue Hurbilago Elkarteak zirkulazioan jarri duen tokiko txanpon berria. 10eko 1.000 txanpon plazaratu dituzte.

Guneotan guztietan, 10 euroko txanpon bakoitza 9 euroren truke erosteko aukera izango duzue; beste modu batera esanda, %10eko beherapenarekin. Txanponokin, Hurbilago Elkarteak diren edozein establezimenduetan erosketak egin ahalko dituzue urtarrilaren 5era arte. 10 euroko erosketa bakoitza, 9 eurotan; lehen aipatu moduan, %10 merkeago.

## Aukeratu, Herritar Txartelaren izena eta diseinua

Erosketak egin eta udal zerbitzuetan identifikagarri gisa baliatu ahalko den Herritar Txartelaren izena eta diseinua



**Txanpon hauekin, Hurbilago Elkarteak diren edozein establezimenduetan erosketak egin ahalko dira urtarrilaren 5era arte, %10eko beherapenarekin.**

## HERRITAR TXARTELA

**“18 lan aurkeztu ziren. Epaimahaiak hiru aukeratu ditu eta herritarron txanda da orain. Abenduaren 19ra arte dago bozkatzeko aukera”**

hautatzeko lehiaketara, 18 lan aurkeztu ziren. Epaimahaiak 3 aukeratu ditu eta herritarron txanda da orain. 3 lanotako baten alde bozkatzeko aukera egongo da, abenduaren 19ra

arte. Horretarako, Hurbilago Elkarteak hiru diseinuak eskuorri batean bildu eta etxeetan banatzekoak dira egunotan. Aipatu elkarteak saltokietan ere eskuragarri izango dituzue. Proposamenak ikusi eta hauek baten alde bozkatzeko aukera izango duzue, eskuorria bera, bozka papera ere izango baita. Hiru diseinuetako bati marka egin eta eskuorria, Hurbilago Elkarteak establezimenduetan jarriak izango diren kuxtetan utzi. Gabonetan egingo da bozka zenbaketa.

# Ganbadun pintxoak, igande honetako Tipi-Tapan

**B**apo jan eta edateko hitzordua ate joka berriz; igandean, abenduaren 13an ospatuko da hilabete honi dagokion Tipi-Tapa. Oraingoan, ganbadun pintxo bereziak prestatuko dizkigute era desberdinetara, Txiriboga, Aitzaga, Txirristra, Bordatxo eta Artzabalgo sukaldeetan. Edariarekin batera 2 eurotan dastatu ahalko ditugu.

Probatzen duzuen zizka mizka bakoitzeko zigilua lortu tabernetan eta parte hartu, Tipi-Tapa amaierako zozketan. Datorrena, abenduaren 13an egingo da, 15:00etan Artzabal. Bi sari zozketatuko dituzte: 150 euroko erosketa-balea eta 2 lagunentzako afaria Artzabalen.



**Txiribogan, Aitzagan, Txirristran, Bordatxon eta Artzabalen egiten da Tipi-Tapa. Bi sari zozketatuko dira: 150 euroko balea eta birezat afaria Artzabalen.**



**Joana Larreari 150 euroko erosketa balea tokatu zitzaion azaroan.**



**Jose Miguel Villafafilari, aldiz, bi lagunentzako afaria Artzabalen.**

## Hurbilago San Silvestre probarako izen ematea

Hurbilago.com atarian eta Hurbilago Elkarteak kide diren establezimenduetan apuntatu ahalko zarete, abenduaren 31rako antolatutako probarako. Tokiko merkataritza sustatzearen aldeko ekimenaren seigarren edizioa, Urte Zahar Egunez, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da frontoitik.

## Gabonetako Zozketa, Hurbilago elkartearen eskutik

Sari potoloak irabazteko aukera izango duzue, asteotan Hurbilago Elkarteak establezimenduetan erosketak egiten badituzue. Udalerriko merkataritza eta ostalarien elkarteak antolatutako Gabonetako Zozketaz ari gara. Aldaketarik ez bada, egunotan Sutegin ikusgai izango dituzue abenduaren 31n zozketatuko diren sariak.

## Seaska egutegia Udarregin eskuragarri

2016ko egutegia (Seaska) Udarregin jarri dute salgai. Ale bakoitzaren salneurria 4 eurokoa da.

## Euskarazko Produktuen Katalogoa

120.000 ale banatu dituzte Euskal Herriko 140 bat udal (tartean Usurbilgoak) eta mankomunitateetako euskarazko zerbitzuek. Horietaatik mordoaxka bat, Usurbilen, ikasleen artean. Aurten, 12 urte arteko banatu zaie papereko edizioa. Papereko edizioaz gain, sarean ere atari propioa du Euskarazko Produktuen Katalogoak: katalogoa.eus

## Artzabalgo pintura ikastaroko enakusketa



Argazkian, Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea.

Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea. Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea. Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea. Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea. Jasone Irigoienek zuzentzen duen marrazketa taldea.

## 1965eko en kinto argazkia



Ondoko irudian aurten, 50 urte bete dituzten usurbildarrak. 1965ean jaiotakoak, Olarrondo jatetxean ospatu zuten kinto bazkari baten bueltan bildu ziren joan den azaroaren 21ean. Taldeak bidalitakoa da argazkia.



### Pirritx eta Porrotxen saiorako sarrerak, Bordatxon eta Marije dendan

Argiaren Adiskideen Usurbilgo Taldeak antolatuta duen ekitaldia, abenduaren 19an 17:00etan Oiarde Kiroldegian. Emanaldi bakarra izango da aurten. Sarrerak aurrez eskura ditzakezue 7 eurotan Marije arropa denda eta Bordatxo tabernan. "Amalur" ikuskizun berrian, "pailazoak baserrira doaz Marimototsengana. Marimotots bertan da Ilargirekin ikasten, baserritarra izan nahi baitu".

### Xabier Uriberen liburu aurkezpena

Usurbildarrak argitaratu berri duen "Sólo amor" liburua aurkeztuko du abenduaren 18an, arratsaldeko 19:00etan hasita Sutegi udal liburutegian.

### Muxurbilen "Basoko aitona" antzezlan

Gabonei harrera egingo dien antzerki eskolako en ekitaldia, abenduaren 19an, eguerdiko 12:00etan hasita Sutegin. Sarrera doan.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



# Euskararen Eguna, iruditan



Kantu saioak, jolasak, aldarrikapen mezuak eta gehiago utzi dizkigu joan berri zaigun Euskararen Egunak.



Euskaltegian film bat ikusi zuten eta ondoren solasaldia egin zuten.



Abenduaren 3koa jai-eguna izan zen Udaletxean.

## BAZKIDEEN TXOKOA



### GABONETAKO ZOZKETAK



ABENDUAREN 13AN, IGANDEA  
AMAMA FILMA IKUSTEKO  
2 SARRERA BIKOITZ



2 LAGUNENTZAKO  
URTEZAHAR AFARIA +  
GAUA ORIOKO AISIAN

**noaua! euskararen aterpe**

# Idoia Torregarai: “Etxetik jaso dut umorea”

ABENDUAREN 15EAN ASTEARTEA, UMOREARI BURUZKO SOLASALDIA ESKAINIKO DU POTXOENEAN

Idoiari etxetik bertatik datorkio umorerako joera. Abenduaren 15ean Potxoenean eskainiko duen saioan, txikitatik bizitakoa izango du abiapuntu. Baina pentsarazteko gako batzuk ere eskainiko dizkigu. “Gai honetan hausnarketa egiten duten hainbat ahots izango ditugu bidelagun”. Uxue Alberdi, Uxo Anduaga, Kike Amonarriz edota Onintza Enbeitaren bideoekin osatuko dute datorren astearte-ko solasaldia.

**NOAUA! “Betaurreko (u)moreak: emakumeak barrean ahalduntzen”. Hausnarketatik ere izango du hitzaldiak, ezta?**

**Idoia Torregarai.** Feminismoaz eta ahalduntzeaz hausnarketa handia ematen ari da, eta pertsona asko dago horren inguruan lan ikaragarria egiten, Udaleko Parekidetasun Saila eta Matrakak taldea adibidez. Oso beharrezkoa iruditzen zait lanketa hau.

Solasaldi honetan, txikitatik bizitakoa dut abiapuntu, eta gai honetan hausnarketa egiten duten hainbat ahots izango ditugu bidelagun, bideoen bidez.

Horretan oinarrituko naiz batez ere. Baina umorean ere, beti sentitu izan dut emakumeak –eta nik emakume bezala– koxka bat gehiago gauditu behar duela. Besteak beste, zergatik ez daude erreferentziatzko emakume gehiago? Antzerki-gintzan egon da erreferentziarik, bertsotan ere, baina arlo horietan ere oso gutxi zeuden.

**Erreferentzia falta sumatzen duzu umoreaz jarduteko garaian?**

Umorea kontzienteago egiten hasi, eta konturatzen zara erreferentzialtasun hori batez ere gizonezkoena dela. Emakumearena falta dela. Umora hori konpartitzeko garaian ere, biga-



Bi kazetariren arteko solasaldia izango da: Idoia Torregarai (azalekoa eta ezkerreko argazkia: Ion Markel) eta Nagore Uriarteren artekoa (eskubikoa, argazkia: klitto.com).

## IDOIA TORREGARAI

**“Umorean ere, emakumeak ahaldundu egin behar gara. Ez taula gainean bakarrik, baita egunerokotasunean ere. Inportantea da, zeren erreferentzia guztiak oso maskulinoak baitira”**

rrren mailakoa dela emakumeak egiten duena.

**Zuk ordea umoretsu fama duzu.**

Eta betidanik erabili dut umorea estrategia bezala nire bizitzan. Etxetik jaso dut eta funtzionatu izan dit. Uste dut aportatu egin didala, eta aportatu egin dudala. Baina duela hiru urte ‘Barretartia’ sortu nuenetik, umorea lantzeko behar bat sentitzen dut.

**Monologo bat, solasaldi bat, hitzaldi bat... Nola definituko zenuke abenduaren 15eko saioa?** Koktel bat da. Nagore Uriarterek puntuak ipiniko ditu eta ni saiatuko naiz puntu horiei erantzuten. Gaia interesatzen

zaidan aldetik, gai honi loturiko erreferentziak egongo dira bideo proiektio ezberdinen bitartez. Pozik egongo nintzateke jendeak bi irakurketa hauek egingo balitu:

- Zein garrantzitsua den umorea. Ez dela denborapasa inuzente bat. Funtzio inportante asko ditu, kritika, errepresentazioa, ondo pasatzekoa, ondo pasatzekoa da baina zapaltzaile ere izan daiteke... Jendea horretaz konturatzea nahiko nuke.

- Eremu horretan ere, emakumeak ahaldundu egin behar gara. Ez taula gainean bakarrik, baita egunerokotasunean. Umorea etxean dago, koadrilan, kalean... Betaurreko horiek jantzita, jendea konturatzea zer nolako umorea egingo dugun.

Whatsapp bidez jasotzen ditugun irudi asko eta asko oso matxistak dira, adibidez. Horretaz konturatzea eta horri buelta ematea, emakumea plaza horiek ere bereganatzen joan dadin. Taula gainekoa zein egunerokoa. Inportantea da, zeren erreferentzia guztiak oso maskulinoak baitira.

**“Denok egin dezakegu umorea”**

**‘Barretartia’ bloga, Euskadi Irratiantian kolaboratzen duzu... Erreferentzia bihurtzen ari zara.**

Ni ezagutzen nauen edonork badaki nire ezaugarrietako bat umorea dela. Duela hiruzpalau urte gorputzak eskatzen zidan umoreari buruz zerbait egitea, euskaraz, noski. ‘Barretartia’ bloga izan da hazia, eta oso harro nago. Hor biltzen ditut nire gauzak, eta ekarpenak egin ditzakeen ororenak. Denok egin dezakegu umorea, beti pentsatu izan dut hori, eta horregatik proiektu ireki gisa ulertu dut beti blogarena. Eta horri tiraka etorri dira Hamaika Telebistako elkarrizketak, hitzaldiak, formazioak, irratikoa... Pila bat betetzen nau.

**“Betaurreko (u)moreak: emakumeak barrean ahalduntzen”**

■ Abenduak 15 astearte. 18:30.

■ Potxoenean.

■ Hizlariak: Idoia Torregarai eta Nagore Uriarte.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

# Joxan Artzeren poesian barrena

IKIMILIKILIKLIK, JA ARTZEREN UNIBERTSOA ERAKUSKETA IKUSGAI DA DONOSTIAKO SAN TELMON



Azaroaren 27an egin zen erakusketaren inaugurazioa. Argazkian dira erakusketaren egileak, sustatzaileak eta tartean Donostia eta Usurbilgo alkateak.

Bideoinstalazio baten bitartez, Joxan Artzeren unibertso poetikoa islatzea du helburu erakusketak. Alberto Lizarralde eta Carlos Rodriguezek zuzendu dute eta otsailaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Sarrera doakoa da. Eta Martxotik aurrera, Biarritzeko Médiathèque-an ipiniko dute.

Joxan Artzeren poesian barrena, bidaia poetiko bat egiteko gonbitea duzue *Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa* izene-

ko bideo instalazioa. Paretetan, zorian, sabaian... Erakusketa honetan, hitzez, irudiz eta kantuz ageri zaigu Usurbilgo poeta.

San Telmo Museoak eta EHUko Mikel Laboa Katedrak antolatu dute erakusketa.

## Poeta eta musikari oparoa

Batzuei Joxan Artze ezaguna egingo zaie Mikel Laboaren abestien parte ere badelako: "Txoria txori", "Gure Bazterrak" edo "Zaude lasai" abestien hitzak Joxanenak baitira. Jexuxekin txalapartari gisa aritzeagatik ezagutuko dute beste askok. Baina Joxan Artzek obra poetiko oparoa du, artearen hainbat esparrutan garatu duena: poema-liburuak, au-

dio-grabazioak eta ikuskizun eszenikoak. Azken hauek, bere idatzizko proposamenak eszenatokira daramatzatenak, abangoardiakoak izan ziren bere garaian. Horien artean azpimarratzekoa da *Ikimilikiliklik* bidekidekaria, musika, poesia eta irudia uztartzen zituen ikuskizun multimedia. 70eko hamarkadan testuinguru kulturala astindu zuena.

*Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa* erakusketak hori guztia eman nahi du aditzera.

Ikus-entzunezko sorkuntza da San Telmon ipini dutena. Irudi, kantu eta soinu ezberdinekin osatutako kosmos moduko batean murgilduko da ikuslea, eta azken hamarkadetako euskal sortzaile garrantzitsuenetako bat ezagutzeko aukera izango du.

### Otsailaren 14ra arte zabalik

Erakusketa otsailaren 14ra arte egongo da ikusgai San Telmo Museoaren Laborategi Aretoan, asteartetik igandera, 10:00etatik 20:00etara. Sarrera, doan.

#### ■ Familientzako tailerrak:

Abenduak 12 larunbata, 17:00etan. Ikimilikiliklik.

#### ■ DBHko ikasleei zuzendutako bisita-tailerrak:

santelmomuseoa.com


Erreserbak: 943 48 15 61 / stm\_erreserbak@donostia.eus

■ Antolatzaileak: EHU UPVko Mikel Laboa Katedra, San Telmo Museoa.

■ Zuzendariak: Alberto Lizarralde eta Carlos Rodriguez.

■ Ekoizleak: Morgancrea.

■ Kolaboratzaileak: Euskal Kultur Erakundea, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua, Kutxa Fundazioa, Otxoa de Barandika Fundazioa, Usurbilgo Udala, Ville de Biarritz-Médiathèque.



**USURBIL AUTOAK**  
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
 Zumartegi industrialdea

**943 36 10 79**

**LOGOPEDIA**  
 Haurrak / Nerabeak / Helduak  
**TERAPIA MIOFUNZIONALA**

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...


Aurreko hitzordua: 635 701 374

# ABENDUAK 13, IGANDEA SUTEGIN 19:00

Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide.


Baserria eta kalearen arteko gatazka,  
tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka,  
guraso eta seme-alaben arteko ezin ulertua.  
Bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egiteko  
bi modu, elkarren aurka.

Eta badoan mundu baten eta badatorren  
beste baten aurrean, lekuko isil, amama.








SARRERA: 6€. (Aldez aurretik Bordatxon,  
Lizardin eta NoauaIn) Bazkideek 4€tan erosi ahal izango dute  
Noauako egoitzan aldez aurretik.





**ILARGIAREN  
EGUTEGIA 2016**

**Pello Zabalak**  
aukeratutako esaerak


ALKARTASUNA KOOPERATIBA,  
ARGIA eta KIMU BATen  
eskutik:

**"ILARGIAREN EGUTEGIA"**ren  
aurkezpena

**Abenduak 19, larunbata**

Potxoenea Kultur etxean,  
goizeko 11:00tan  
Jakoba Errekondorekin

Sarrera doakoa izango den arren, izena ematea beharrezko da, aretoa bete arte. Izena emateko: 943361114 edota [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) helbide elektronikoan).





## Matrakak taldea

Hala diote, normalizazio prozesua bizi dugula Euskal Herrian. Patriarkatuaren funtzionamendu "baketsua" alegia? Bakea, ez da soilik indarkeria jakin baten eza, eta bistan da. Emakumeok ez baikara "bakean" bizi, ez behintzat emakumeon kontrako indarkeria normalizat duen bake egoera neutralizatu honetan: zeinetan, emakumeon aurkako gutxiespenak, irainak, gustukoak ez diren txisteak, kolpeak, prekaritate eta muturreko pobrezia egoerak, etab eguneroko errealitate diren.

Indarkeria sexistarekiko 0 tolerantzia dioten hitzak, puntu moreak edozein denda eta tabernetan, pankartaren atzealdean ordezkaritza politikoko edonoiz; geroz eta kontzientziatuagoa dago jendartea eraso sexisten gaiarekin: ados. Oso eroso eta komenigarria izan daiteke aldarrikapen hauekin bat egitea, lanketa formal eta politikoki zuzenak egitea, «feminista naiz» etiketa jartzea, eraso beti kanpoan kokatuz, nor bere burua zalantzan jarri gabe eta errora jo gabe. Erantzunak puntualak izaten dira, eta inondik inora emakumeok eta identitate ez normatiboek jasaten dugun indarkeriaren tamainakoak. Bada berriro azpimarratzen dugu; indarkeria sexista, sistema patriarkalaren makineriak darabilen tresna dela emakumeok azpiratuta betikotzeko, jendartean gizon eta emakumeon arteko botere harremanak mantentzeko. Batzuk, boterearen jabe, aktibo, dirudun, ar alfa... izaten jarrai

# Ekin autodefentsa feministari!



Matrakak taldearen adierazpena, azaroaren 25aren harira.

## MATRAKAK TALDEA

**"Indarkeria sexista, sistema patriarkalaren makineriak darabilen tresna da emakumeok azpiratuta betikotzeko"**

dezaten eta besteok, des-botere, pasibo, pobre, abegikor jarrai dezagun. Hala, intentsitate baxu zein altuko indarkeria bortitzenak (emakumeen erailketak, bortxaketak, eraso lesbofoboak, esplotazioa...) eguneroko errealitate eta bizipenak dira gure bizitzetan; hemen inork ez du alerta egoera deklaritzen astero-astero bortxaketa salaketak prentsan albiste ditugunean edo sei emakume erailtzen dituztenean Euskal Herrian urte batean.

Sistema heteropatriarkalean, etengabe erasotzen ari gaituzten honetan, feministok, indarkeria sexistaren aurka 365 egunetan dihardugu. Batzuetan pankartaren atzean, besteetan, instituzio publiko politikoei protokoloak elkarlanean

lantzen, indarkeria sexistaren aurrean asistentzia eta babes sareak ehuntzen, jaietan emakumeontzako espazio seguruak sustatzen, indarkeria sexistaren egitura osoaren kontzeptualizazioa jendarteratzen, Autodefentsa Feminista tailerrak egiten. Besteetan, aldiz, ileorde, buru beroki nahiz kuleroak buruan jarri eta lapurtu nahi izan dizkiguten kale eta gauetan barrena erantzuteko prest gaudela. Bati erasotzen ditugunean guztioi erasotzen ditugula ozen oihukatzen jarraituko dugu.

Emakume bezala sozializatuak izan garenok, oro har, beldur dosi handiz elikatu gaituzte txiki-txikitatik. Ez digute utzi beldurra erantzun bilakatzeko gaitasunez jantzi. Are gehiago, sozializazio prozesuan zehar, gure buruarengan segurtasuna izatea ahalbidetzen duten esperientziak ukatu dizkigute, gure barne-mugak errotuz. Bortxaketa esaterako, emakume guztiok emakume izate hutsagatik bizi dugun mehatxua izanik gure ekintzak eta espazioan egoteko moduak mugatzen ditu. Honek

izen eta helburu argia dauka: indarkeria eta kontrola.

Baina, zein da ordea, jendarte honen (eta bere botere harremanen) parte diren beste subjektuen zeregina? Bada garaia sistema honek sortzen duen beldur eta biolentzia arduraz kudeatzeko, erradikalitatez, hots, arazoaren erroa joaz norberaren jarduketik gure praktika politikoko kolektiboetara pasatuz. Ardura lekualdatu, banatu, eta indarkeria sexistaren aurkako borrokan apustu garbiak egiteko garaia dugu, bakoitza bere eremutik, norabide berdinean.

Indarkeria sexistaren aurrean autodefentsa feministaz ahalduntzea izan zen eta da gure hautua, eta bide honetan jarraituko dugu indarkeriak gure bizitzak kolpatu bitartean. Behar, ardura eta zilegitasun osoa daukagulako gure buruengan sinetsi, saretu eta blokeatzen gaituen beldurra erasoei erantzuteko emozio aktibatzaile bihurtzeko. Emakumeok erasoaren aurrean, biktima gisa jarduten dugun bitartean, jendartean ez da arazorik. Baina ahalduntzean, erantzuten dugun momentuan gure erantzuna zalantzan jartzen da, zigor zuzen nahiz sozialen bitartez. Gu, erantzuteko eskubidean berresten gara, gure bizitzak jokoan daudelako, guk ez badugu egiten ez duelako beste inork egingo.

Bakearen aroa bada, izan dadila denontzako bake garaia.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**txirriStra**  
**TABERNA**  
 -Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak  
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Ikasleek kantuan hartuko dituzte eguberrietako oporrak



Euskararen Egunean, Udarregiko ikasleak Mikel Laboa plazara hurbildu ziren kantatzera.

Astebete barru oporretara kantuan joango dira ikasleak. Aginagako Eskolako eta Udarregi Ikastolako ikasle zein irakasleak, gabon kantuak abesten ikusiko ditugu kaleetan barrena abenduaren 18an, goiz partean.

Aginagakoak, eskolatik irten eta auzoan barrena. Udarregioak Kaxkoan eta Kalezar inguruetan. Hori goizez. Arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Haur Eskolako txanda izango da. Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan ostean, kalejiran abestuz abiatuko

dira frontoirantz. Frontoian, askari baten bueltan borobilduko dute ekitaldia.

Zubietako Eskolakoek aldiz, abenduaren 21ean Santo Tomas jaia ospatuko dute; txistor jana eta haur, hezitzaile zein gurasoak bilduko dituen gabon kanten saioa.

## Aginagako txokoetan izen ematea ixtear da

Ostiral hau duzue, San Praixku Guraso Elkarrean gabonetarako antolatutuen txokoetan izen emateko azken eguna. Apuntatzeko, idatzi helbide honetara: [\[txikiak.org\]\(http://txikiak.org\). Gabonetako aisialdi ekimena, abenduaren 21etik 23ra, hilaren 28tik 30era eta urtarrilaren 4tik 5era. Goizez, 9:00-13:00 artean. Txokoetako prezioa, izen emandako haur kopuruaren arabera zehaztuko da.](mailto:aginaga@eskola-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

## Gaztelekuan, musika instrumentuak egiteko tailerra

Material birziklatuekin musika instrumentuak egiteko tailerra antolatu dute. Larunbat honetan arratsaldeko 16:00etan frontoian, DBH 1. mailako taldekoentzat.

# Zubietako Irigoien jatetxea bigarren geratu da Euskadiko Parrilleroen Txapelketan

Jakitea Gipuzkoako sukaldarien elkarrean antolatuta ospatu zen azaroaren amaieran, Donostian. Eta Euskadiko III. Parrilla Txapelketa Getxoko Igeretxe Hoteleko sukaldari arduradunak irabazi zuen. Martin Astiazaranek Zubietako Irigoien jatetxea ordezkatu zuen eta txapelkun orde amaitu zuen. Argazkia: Ainara Arnaiz.



Martin Astiazaranek ordezkatu zuen Irigoien jatetxea.

## Udal aurrekontuen inguruko bilera erronda

■ Abenduak 15, asteartea: 13:30etan Merkataritza-ostalaritzako eragileekin.

■ Abenduak 16, asteazkena: 19:00etan Garapen sozio-ekonomikoan dihardutenekin.

Bileren tokia: Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoa. Deitzailea: Usurbilgo Udala.

## EHBilduren

### hurrengo ekitaldiak

Ekitaldi politikoa eta kotxekarabana antolatu dituzte:

#### Abenduak 11, ostirala

19:00 Ekitaldi politikoa frontoian: "Hamaika arrazoi independentziazarako".

#### Abenduak 17, osteguna

19:00 Kotxekarabana independentziazarako, Oiarde Kiroldegitik abiatuta.

## "Genozidioa Euskal Herrian", Eneko

### Bidegainen hitzaldia

Nafartarrak taldekoek abenduaren 17rako antolatu dute hitzaldia, 19:00etan Sutegin auditorioan. "Raphael Lemkin Holokaustotik bizirik atera zen jurista poloniarak definitu zuen NBERentzat genozidioaren kontzeptua: giza talde bat berariaz suntsitzea ez ezik, haren kultura, ekonomia, hizkuntza, erlijioa eta nazio hori osatzen duen guztia desagerraraztea ere bada. Eneko Bidegainen errepaso ematen diogure historiari, Lemkin eta Xabier Irujoren liburua ("Genozidioa en Euskal Herria") abiapuntutzat hartuta".



Abenduaren 17an Sutegin izango da Eneko Bidegain.

# Usurbil nagusi, Euskadiko Judo Txapelketan



Azaroaren 28an jokatu zen Hernanin eta 11 dominetatik 7 Usurbilgo Judo Taldearentzat izan ziren.

Ohi bezala, domina bat baino gehiagorekin itzuli ziren judo taldekoak, azaroaren 28an Hernanin jokatu zuten senior mailako txapelketatik. Euskadiko 14 txapeldunetatik 7, erdia beraz, Usurbil Judo Klubekoak dira. Gipuzkoara etorrira, are nabariagoa da usurbildarren nagusitasuna. 11

dominetatik 7 Usurbil Judo Klubarentzat izan ziren. Honatx senior txapeldunen izen abizenak; nesketan, Paula Vicente (-48kg), Andrea Arruabarrena (-57 kg) eta Aurelia Perret (+78kg) nagusitu ziren. Mutiletan, Andoni Aizpurua (-60kg), Ion Martin (-73kg), Egoitz Mora (-100kg) eta Iker Lizarribar (+100kg).

## Usurbil FT-ko beteranoen taldea

Helduen mailako futbol taldean parte hartzeko gonbita Usurbil F.T.-tik. "Futbola gustuko izan eta Usurbil F.T.-n jokatu nahi baduzu, beteranoen taldean parte hartu! Anima zaituzte!". Argibide gehiagorako: 658 709 246.

## Usurbil KE-ren eskubaloi partidak

### Abenduak 12, larunbata

- 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Urnieta 5
- 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Udarregi 6C
- 10:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-Urnieta 6
- 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Bidasoa Irun A
- 12:45 Infantil mutilak, Gi-

puzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Saieko K.E. La Salle

- 14:00 Kadete neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E. "B"-Tolosa C.F. "B"
- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Basauri
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Basauri
- 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Balonmano Romo Indupime

### Abenduak 13, igandea

- 09:15 Alebin neskak, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Elgoibarko Sanlo EKT
- 10:15 Alebin mutilak, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Elgoibarko Sanlo EKT
- 11:30 Senior neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Leizaran Eskubaloia

## Behin behineko zuzendaritza du Usurbil KE-k

Hautagai talde bakarra aurkeztu denez, "ez dago hauteskundeak egiteko batzar deialdia egin beharrik, hautagaitza bakarra dagoen kasuetan huraxe aldarrikatu besterik ez baita geratzen", Usurbil K.E.-tik berri eman dutenez. Oraingoz halere, behin behinean onartu da zuzendaritza talde berria osatzeko aipatu hautagaitza. Alegazioen epea dator orain.

Abenduaren 12tik 14ra, Usurbil K.E.-k tarte horretan deituko duen batzarrean behin betiko onartu dezakete hautagai taldea.

## Mendiko federatu txartelak berritzeko garaia

Datorren urterako federatu txartelak berritu ez dituztenek, tramitazioa urte amaiera baino lehen egitea aholkatzen du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak. Urtean zehar antolatzen dituzten irteerarako beharrezkoa da txartela eguneratua edukitzea. Informazio gehiago eta tramitazioari buruzko argibide guztiak, andatzamendizale.info atarian aurki ditzakezue. Edo taldekoei helbide honetara idatzita: andatza@hotmail.com

## Elkarteen arteko

### Euskal Herriko

### Pilota Txapelketa

Soraluze-Pagazpe (Soraluzen)

Abenduak 10 osteguna, 20:00

### Nagusia binaka:

Xabi Urbieta- Aitor Gorrotxategi.

Lauterdian: Ander Quina.

Banaka: Xabi Santxo.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

KONSTELAZIO FAMILIARRAK  
FAMILI ETA ESKOLAN BIZI ETA ELKARBIZI BALIABIDE SISTEMIKOAK  
(HILERO LARUNBAT BATEZ)  
**688 865 708 AMASA**

Patxeta jatetxea  
bazkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44





orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketari, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelarekin. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarrekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00,

eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

#### BESTELAKOAK

Bi ohedun haur logela berria salgai. "T" itxura duena. 100 euro. 675 007 048. Garbiñe.

Lagorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marrroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarrik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzta. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUA!tik, bertan ditugu eta.

Eguzki-elkartean bazkide egiteko aukera. Tel 677 62 14 65

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berr berria dago. Tel. 943 363 201.

Irailean Zubietako Lertxundi gainan aurkitu nituen betaurrekiko batzuk: 943362665.

3 katu oparitzen ditut, 3 hilabete eta erdi dituzte. Tel. 688 827 995.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. As-teburutan. 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaui Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 10** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 12** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 13** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 14** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 15** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 16** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

## Abenduak 10 - abenduak 20

**Osteguna 17** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 18** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 19** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87  
22:00 - 09:00

# Agenda abendua

## 11 ostirala

- **Jostailu Erabilien Azokarako material bilketa** 17:00-19:00 Sutegin.

## 12 larunbata

- **Dilistak eta Anabasa Jaialdia** egun osoz.
- **Jostailu Erabilien Azoka** 11:00-13:00 frontoian.
- **Kafe-tertulia emakumeentzat** 11:00etan Potxoenean.
- **Gaztelekua: tailerra** 16:00etan frontoian.

## 13 igandea

- **Tipi-Tapa: ganbadun pintxoak**, Aitzaga, Artzabal, Txiriboga, Txirristra eta Bordatxo tabernetan, 15:00ak arte.
- **Amama filma** Sutegin, 19:00etan. Sarrera, egunean bertan, 6 euro.

## Igande honetan, "Amama" Sutegin

**F**ilma gertuen dugun merkatal gune handiko zinema karteldegitik kendu zain ginen, proiektioak mantendu artean ezin baikenuen Sutegira ekarri. Karteldegitik kendu zutelakin bezain laster antolatutako dugu emanaldia; "Amama" igande honetan, abenduaren 13an, Sutegin ikusgai NOAUA! KEren eskutik, iluntzeko 19:00etatik aurrera. Sarrerak aurrez salgai izango dituzue 6 eurotan, Lizardin, Bordatxon eta NOAUA!n. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan, baina aldeztu aurretik eta soilik kultur elkarterko egoitzan.


### Baserría eta kalearen arteko gatazkaz

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sinopsia: "Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide. Baserría eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, guraso eta seme-alaben arteko ezin ulertua. Bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egiteko bi modu, elkarren aurka. Eta badoan mundu baten eta badatorren beste baten aurrean, lekuko isil, amama".
- Zuzendaritza eta Gidoia: Asier Altuna.
- Aktoreak: Kandido Uranga, Iraia Elias, Klara Badiola, Ander Lipus, Amparo Badiola, Manu Uranga.

### Patriarkatuari buruzko

#### kafe-tertulia, Matrakak deituta

Larunbatean, goizeko 11:00etatik aurrera Potxoenean. Hitzorduan parte hartzera animatzen dituzte emakumeak, baita hamaiketako eramatera ere, "elkarren artean une polit bat pasatzeko. Geuk ere zerbait emango dugu".



Amparo Badiola eta Iraia Elias, 'Amama' pelikulako bi aktore.

- Nagore Aranburu.
- Iraupena: 103 minutu.
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

### Afari beganoa gaztetxean, borondatearen truke

Animalietatik eratorriak ez dauden jakiekien eginitako afaria, hilero moduan, abenduko bigarren ostegun honetan, iluntzeko 20:30ean hasita Usurbilgo Gaztetxean. Otordua, borondatearen truke.

### Datozenak

#### Larunbat honetan, Dilistak eta Anabasa Jaialdia

Antolatzaileek aditza eman duteenez, hardcore-punk zaratari eta lentejei gorazarrea egiteko eguna izango da larunbat honetakoa. Egitarau oparoa prestatu dute:



#### Abenduak 12, larunbata

- 12:00 Lenteja txapelketa: "Parte hartzaileek suak piztu eta prestatzeari ekingo diote. Baldintzak hauek izango dira: eltzea eta barazkiak zuen kontu; sua, lentejak, olio eta gatza gure kontu; beganoa izan beharko du".
- Ondoren, probatzaileek sari banaketa egingo dute bertso bidez eta bazkari herrikoia egingo da prestatutakoarekin.
- Arratsaldean, sorpresak. "Kontu ibili, edozer gerta daiteke!".
- 20:00etatik aurrera, kontzertua Usurbilgo Gaztetxean. No Human Existence (Grindcrust, Bourdeaux), Ras (Grindcore masters, Tolosa), Haginak (Hc, Orduña), Raza Odiada (D-beat, Bartzelona), Batañlla (Crust'n'roll, Salamanka), No Retorno (Hc, Zaratazarautz), Sub Rats (Crust, Portugalete), Realidad (Hc radikal, Arnedo).

**ESKAIOLA eta PLADUR**

Joxean Elorza

**699426042**

USURBIL



943 50 80 95 • 688 81 93 33

nagusia 10 (atzek) USURBIL

**ELORZA**

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

**661 804 688**

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



*ÇABONAK AISIAN: ÇABON ÇAUA, URTEZAHAR, URTE EBERRI...*

## **URTEZAHAR KOTILIOIA ORIOKO AISIAN**

*Etxeko Foie terrina mango "coulis" arekin, mahaspasa eta intxaur ogiarekin*

*Pikillozko piperrak brandadazko bakailuz beteak bere zukuari*

*Txangurrua donostiar erara*

\*\*\*\*

*Zapoa labean otarraindua onddo arroz krematsurekin*

*Azpizuna plantxan Oportoko saltsarekin eta hirugihar,*

*patata eta gazta hostopila*

\*\*\*\*

*Tiramisua mango izozkiarekin eta amaretto murrizketa*

*Zortedun mahatsak, cava kopa*

*Gabonetako gozoak*

*Ogia, Rioja ardo ondua, ardo txuria, ardo gorria eta kafea*

**99,90 € + % 10 BEZ-a (pertsona bakoitzeko)**

*UMEENTZAT: Frijitu ugariak (kroketak, ganbak), otarrainxkak*

*plantxan, azpizuna patatekin, tarta edo izozkia. Freskagarriak eta ura.*

**25,00 € + % 10 BEZ-a (pertsona bakoitzeko)**

**MUSIKAZ GIROTUA**

  
**aisia**  
ORIO

# Santo Tomas eguna ospatzeko deialdia



Noaua!k baserritar guztiak  
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sagardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren  
**igande** goizez **20an**

## Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

**Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.**

## Informazioa eta epea:

• Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

**ABENDUAREN 9tik 17ra (biak barne)**

• Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:


- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

## Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- **1go saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€ + kopa**
- **3. saria: 50€**

**Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.**



**noaua**